



## EUSKADIKO ADIERAZPENA

Euskadin, azaroaren 3 eta 4an izandako Europako Eskualde Legebiltzarretako Lehendakarien XII. Batzarrean esku hartu duten Lehendakariak

(Euskadiko Adierazpena sinatu dutenen zerrenda)

ondorengo Adierazpena onartu dute:

### Lisboako Ituna

1. EELBk Lisboako Ituna berresteko prozesuan sortutako arazoak konponduko direla eta Lisboako Ituna lehenbailehen indarrean sartzea espero du.
2. Kontseilu Europarrak 2008ko ekainean eta urrian adierazitako asmoaren alde azaltzen da EELB, hau da, Lisboako Ituna berresteko prozesuarekin jarraitzearen alde.
3. Gaur, inoiz baino gehiago, Europar Batasunaren erakunde-erreforma behar da, erabakiak hartzeko prozedurak, egun 27 estatu kide hartzen dituen, eta XXI. mendeko politikari datxezkion gardentasun, eraginkortasun eta partehartzeko baldintzetan sakondu behar duen egitura batera egokituta daudela bermatzeko.
4. Era berean, ezinbestekoa da Itun hori ospetsu egiten duten Kanpo eta Baterako Segurtasuneko Politikan, zein "Eskubidearen Europan" egiten diren ekarpen baliotsuak finkatzea, eta bereziki, askatasun, segurtasun eta justiziaren alorreko aurrerapen erabakigarriak, eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren eraginkortasun juridikoa aitortzean.
5. Lehendakariak ezinbestekotzat jotzen dute etorkizuneko erabakiek, eskualde, estatu eta Europa mailako parlamentarismoa indartzen duten Lisboako Ituneko xedapenei eustea.



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

6. EELBk uste du Europaren etorkizunari buruzko hausnarketa sakona, irekia eta partehartezkoa egin behar dela. Holandak eta Frantziak Konstituzio Ituna errefusatzeak, aurrena, eta Irlandak, ondoren, Lisboako Itunari ezetza emateak, agerian uzten dute Europa eraikitzeke moduari europarren zati handi batek dioen mesfidantza.
7. EELBko lehendakarien iritziz, hausnarketa honek egungo gizarteak eskatzen duen politika egiteko modu berrirantz bideratu behar du Europa eraikitzeke era. Behetik gorantz eraiki behar da, prozesu osoan gardentasuna bermatuz eta gizarteak esku hartzeke mekanismo eraginkor, iraunkor eta lotesleak bideratuz. Mekanismo horiek, eraikitzen den Europak zerbitzatu behar duen gizartearen premia eta eskariei erantzuten diela bermatu behar dute.
8. Zentzu honetan, eskualde-legebiltzarrok mailarik egokienetako bat gara hiritarren partehartzea Europaren eraikuntza-prozesu horretan bideratzeko. Ingurunearekin dugun hurbiltasunak eta ingurune horretako gizarte-eskariak ezagutzeak Europa hori osatzen duten hiritarrengana hurbiltzeke eta europar proiektuak herritarrengan ahalik eta adostasunik zabalena izango duela bermatzeko ezinbesteko elementu estrategiko bihurtzen gaituzte.
9. Horregatik guztiarengatik, EELBk europar erakundeei eskatzen die Europar Batasunaren erreformari buruz hausnartu eta/edo ekiteke abian jartzen diren erabaki eta proiektu guztietan europar eskualdeek eraginkortasunez esku hartzeke mekanismo iraunkorrak ezar ditzala.

### **Subsidiarotasun-printzipioaren kontrola.**

10. Europako eskualde legegileok erronka historiko baten aurrean gaude, Europar Batasunaren funtzionamendua arautzen duten oinarriko printzipioetako baten kontrolean eraginkortasunez esku hartzeke erronkaren aurrean, alegia. Lisboako Itunari atxikitako subsidiarotasun-protokolo berri honek bideratzen digun partehartze aktibo eta iraunkor hau, duela hamabi urte, jada, EELBren sorrera eragin zuten aldarrikapenetako bat da, eta, honen bitartez, Europar Batasunak eskualde-mailako eremu legegilea europar politikaren zati integratu eta integratzailetzat jotzen duela aitortzen du.
11. Guk subsidiarotasun-printzipioa kontrolatzeko prozedura honetan esku hartzea, ezinbestekoa da erabakiak hartzeke europar



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

prozesuan gardentasun- eta eraginkortasun-maila hobezinak, hau da, demokratikoak, bermatzeko. EELBk eta berau osatzen dugun lehendakariok atseginez geureganatu dugu erronka hau, aitorten honek bultzada handia ematen baitio Europar Batasunean erregionalismoari.

12. Aurrena, Konstituzio Itunaren berrespen-prozesuetan, eta ondoren, Lisboako Itunarenean sortutako zailtasunek Subsidiariorotasun eta Proporzionaltasun Printzipioaren aplikazioa berandutu dute, eta ondorioz, subsidiariorotasun- eta proporzionaltasun-printzipioen kontrol-prozeduren gaineko xedapen berrien aplikazioa eten dute.
13. EELBren aburuz, ezinbestekoa da Europar Batasunaren baitan erakunde arteko erabaki bat hartzea, Lisboako Itunari atxikitako Subsidiariorotasun Protokoloak barne hartzen dituen prozeduren aplikazioa bermatzera zuzendutako erabakia, hain zuzen.
14. Lehendakariok Europako Batzordeari eskatzen diogu legebiltzar nazionaleri europar kideekiko eskumen partekatuaren alorrean hartzen dituen ekimenen berri ematen jarrai dezala eta bere ekimenak berraztertzeko subsidiariorotasun-protokolo berriak ezarritako irizpideak gauza ditzala.
15. EELBk, EGEOBk 2008ko maiatzean onetsiriko *Biurteko 9. Txostena: Europar Batasuneko Garapena eta legebiltzarreko bozketarako Prozedura eta Praktika garrantzitsuak* delakoaren ondorioak gogoan hartzen ditu, eta subsidiariorotasun-protokolo berria aplikatzeak legebiltzar nazionaleri sortu dizkien ondorioei buruzko kapituluan, eskualde-legebiltzarrei egindako kontsultatik, protokoloak barne hartzen duenetik, ondorioztatutakoak aintzat hartu ez izana deitoratzen du.
16. Horregatik guztiarengatik, EELBk legebiltzar nazionaleri eskatzen die eskualde-legebiltzarrek beren eskumenen esparruan proporzionaltasun- eta subsidiariorotasun-printzipioak europar ekimenei egokitzeari buruz igor diezazkieketen jarreraren berri emateko, horien inguruan kontsultatzeko eta horiek aintzat hartzeko prozedurak gara ditzatela.

## **Europako Kohesio Politikaren Erreforma**

17. Europar Kohesio politikaren erreformaren inguruan, Europako Batzordeak ekainean Ekonomia- eta gizarte-kohesioari buruz aurkeztutako V. Txostenaren aurre-ondorioak aintzat hartzen ditu EELBk, eta poza azaltzen du, halaber, Europako Batzordeak txosten hau lantzeko bideratutako kontsulta-prozesuan europar eskualdeek izan duten partaidetza handiagatik.



**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

18. EELBk aldekotzat jotzen du Europako Batzordeak kohesio-politikarekin 2020.era arte jarraitzeko erakutsi duen borondatearen egiaztapena eta, 2013etik 2020ra bitartean kohesio-politikaren xede zein ekonomia- eta gizarte-garapeneko sektore eta eremu izango diren zehazteko gonbit egiten dio Batzordeari.
19. Era berean, atseginez hartzen ditu EELBk, europar estatu eta eskualdeei baliabide ekonomikoak esleitzeko sistemaren gardentasuna sustatzera zuzendutako neurriak eta Europako Batzordea animatzen du egunera arte ezarritako europar kohesio-politikaren eraginkortasuna ezartzera zuzendutako azterlan eta txostenen bitartez arlo honetan sakon dezan.

### **Europar Kontseiluarekiko lankidetzak**

20. Lehendakariak poz handia azaltzen dute EELBren eta Europar Kontseiluaren Parlamentu Batzarraren artean ezarritako lankidetzahitzarmenarengatik. Hitzarmen horrek Europako parlamentarismoaren eta Eskualde Demokraziaren garapenaren onurarako izango dela uste dute, horiek guztiak, EELB eta Parlamentu Batzarraren ideien arteko funtsezko gaiak direlako.
21. Europar Kontseiluaren beste organo batzuekin antzeko lankidetzahitzarmenak ezartzeko aukerak aztertze konpromisoa hartzen du EELBk, eta bereziki, Tokiko eta Eskualdeko Botereen Biltzarrarekin.
22. EELBko lehendakariak beren herrialdeen aldetik Europako Eskualde Demokraziaren Gutunaren berrespena sustatu eta bultzatzeko prest azaltzen dira, bai eta Europan erregionalizazioa eta demokrazia garatzeko funtsezkoa den tresna honen inguruan adostasuna lortze aldera, Tokiko eta Eskualdeko Botereen Biltzarrarekin batera lan egiteko ere.

### **Erakunde arteko lankidetzako bestelako europar esparruak**

23. Lehendakariak europar erakunde eta organoekin lankidetzan aritzeko asmoa berronesten dute berriro ere, eta lehenik eta behin, Europako Biltzarrarekin, Batzordearekin, EGEOBekin eta Europar Kontseiluarekin, Europa demokrazia indartze aldera.
24. Europako eskualde-legebiltzarrok herritarrengandik hain hurbil egotea arras garrantzitsua da Europako Legebiltzarrerako hauteskunde egungo testuinguruan eta Europaren etorkizunari buruzko ziurgabetasun-egoeran. Pribilegiozko jarrera hau eta europarren zati handi baten ahots-hartzaile gisa dagokigun zilegitasuna, eskumen legegiledun eskualde-legebiltzarrek dugun



**EUSKO LEGEBILTZARRA**  
**PARLAMENTO VASCO**

aktibo nagusia da, europar erakundeen esku eta barrutik, Europa lotu eta indartsuagoa lortzeko, eta kanpotik, kohesionatu eta solidarioagoaren alde lan egiten dutenen esku jartzen dugun aktiboa, alegia.